

DATORREN ASTELEHENEAN ZAMUDIOKO PARKE TEKNOLOGIKOAREN TREN-BUSA ZERBITZUAREN UDAKO ORDUTEGIA INDARREAN SARTUKO DA

Datorren astelehenean, ekainaren 17an, Zamudioko Parke Teknologikora joateko, Eusko Jaurlaritzako Sozietate Publikoa den Euskotreneko tren-busa zerbitzuaren udako ordutegia indarrean sartuko da.

Euskotreneko E3 Kukullaga (Etxebarri)-Lezama tren lineako Zamudioko geltokia eta Parke Teknologikoaren arteko zerbitzu konbinatu honen udako ordutegia honako hau izango da:

- AUTOBUSEN IRTEERA ZAMUDIOKO GELTOKITIK PARKE TEKNOLOGIKORA (astelehenetik ostiralera lanegunak): 7:22, 7:37, 7:52, 8:07, 8:22, 8:37, 8:52, 9:07 eta 9:22.
- AUTOBUSEN IRTEERA ZAMUDIOKO PARKE TEKNOLOGIKOTIK (astelehenetik ostiralera lanegunak): 13:02, 13:32, 14:02, 14:27 eta 14:42.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen 944 333 333 telefono zenbakia erabil dezakete. Konpainiaren www.euskotren.eus webgunean eta twitterreko [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) gunean ere jaso dezakete informazioa.

Igorpen data: osteguna, 2019ko ekainaren 13a

Euskadi, auzolana, bien común

